



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

Batzordea: Tokiko Gobernu Batzarra

Bilera-zenbakia: 2019ICGO0003

Eguna: 2019/03/20

Ordua: 10:05 – 10:35

Tokia: Alkatetza

Bertaratuak

- Zorione Etxezarraga Ortuondo EAJ-PNV
- Juan Martín Arregui Sagües EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Andoni Gartzia Arruabarrena EHBILDU
- Mikel Durán Gonzalo Euskadiko Sozialistak

Idazkaria

Kontxi Urdampilleta Santamaría

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2019ko martxoaren 5eko akta onartzea	1.	Aprobación del acta de 5 de marzo de 2019.
Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko lanpostuen hautaketa prozedurarako kudeaketa gomendioa	2.	Encomienda de gestión para el proceso de selección de las plazas para ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local de Astigarraga
Euskara sustatzeko egitasmoak elkarlanean garatzeko Buruntzaldeko 2019 plana	3.	Plan del 2019 de Buruntzalde para el desarrollo conjunto de programas de fomento de euskara.
Aztigazte lehiaketaren oinarriak eta deialdia.	4.	Bases y convocatoria del concurso Aztigazte.
Kirol arloko 2019rako dirulaguntzen oinarriak eta deialdia publikoa.	5.	Bases y convocatoria pública de las subvenciones del área de deportes para el 2019.
Astigarragako Herri Eskolari eskola kirolarentzat laguntza onartzea.	6.	Subvención a Astigarragako Herri Eskola para el deporte escolar.
Astigarragako Herri Eskolari igeriketa kanpainarentzat laguntza onartzea.	7.	Subvención a Astigarragako Herri Eskola para la campaña de natación.
Dirulaguntza izenduna Norberto Almandoz musika eskolari.	8.	Subvención nominativa a la escuela de música Norberto Almandoz.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Euskara erabilera sustatzeko dirulaguntzen oinarri espezifikoak eta deialdi publikoa	9.	Bases y convocatoria de las subvenciones para fomentar el uso de euskara.
Kultura, Euskara eta Jaien arloetako hainbat dirulaguntza emateko oinarri espezifikoak eta deialdi publikoa	10.	Bases y convocatoria para la concesión de diversas ayudas del área de cultura, euskara y fiestas.
Informazioa, galderak eta eskariak	11.	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2019ko martxoaren 5eko akta onartzea

Aho batez onartu da

1.- Aprobación del acta de 5 de marzo de 2019.

Se aprueba por unanimidad

2.- Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko lanpostuen hautaketa prozedurarako kudeaketa gomendioa

Alkateak pertsonal batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari (PLEA) gomendatzea Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente Kategorian sartzeko lanpostuen hautaketa prozedura burutzeko beharrezko diren izaera material, tekniko edo zerbitzuetako jarduerak gauzatzea.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea kudeaketa gomendioaren hitzarmena sinatzeko, eta baita gomendio hori garatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ere.

Hirugarrena.- Prozesu Bateratuaren tramitaziorako Kontxi Urdampilleta Santamaría izendatzea, pertsona hori izango baita, prozesuko ekintzetan solaskide lanetan arituko dena Udaltzaingoak Koordinatzeko Arloarekin eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin (plazen informazioa, betekizunak, akordioak eta ebazpenak, e.a.). Halaber pertsona horren datuak helaraztea.

Jarraian adierazi du pertsonal batzordean EHBilduren ordezkariak eta langileen ordezkariak adierazi zutela proposamenarekin ez zeudela ados, baina bere taldearen asmoa dela bere horretan onartzea.

Langileen ordezkariak hitza hartu eta eskatu dute gaia mahai gainean uztea, argudiatuz gomendioren erabakia ez denez martxoaren 29a arte jakinarazi

2.- Encomienda de gestión para el proceso de selección de las plazas para ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local de Astigarraga

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de personal:

Primero.- Encomendar a la Academia Vasca de Policía y Emergencias (AVPE), la realización de cuantas actividades de carácter material, técnico o de servicios sean precisas para la ejecución del procedimiento de selección de las plazas para ingreso en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local de Astigarraga.

Segundo.- Autorizar a la alcaldesa a la firma del convenio de encomienda de gestión y de cuantos documentos sean necesarios para desarrollar la encomienda.

Tercero.- Designar a Kontxi Urdampilleta Santamaría como persona de contacto tanto para el Área de Coordinación, como para la AVPE para la tramitación del Proceso selectivo (información sobre plazas, requisitos, publicación de acuerdos y resoluciones, etc.); y facilitar los datos de la misma.

A continuación señala que en dicha comisión de personal la persona representante de EHBildu y la persona representante de las y los trabajadores señalaron que no estaban de acuerdo con la propuesta, pero que su grupo tiene el propósito de aprobarla tal cual está.

Las personas representantes de las y los trabajadores toman la palabra y piden que se deje el tema sobre la mesa, argumentado que, dado que la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

behar, akordioa ez ohiko tokiko batzar batean har daitekeela, eta horrela tarte horretan denbora ematen duela gaia hobeto aztertzeke.

Ainhoak, gainera, azaldu du Pasaia udalean urteetan udaltzain izandako batekin harremanetan jarri dela, eta horrek adierazi diola beraien eskarmentu txarra dutela, izan ere, formula hori erabili izan dutenean oposizioa egiteko, behin baino gehiagotan gertatu zaiela karrerako funtzionarioak izendatu ondoren, batek baino gehiagok postua uztea ertzaintzan sartzeko, eta horrek dakarrela praktikaldiak (Arkauteko ikastaroa barne) udalak ordaintzea, gero udaleko langile ez denean izango.

Alkateak adierazi du ertzaintzak ere postuak betetzeko deialdiak egiten dituela, eta galdetu duenean deialdia udalek antolatzen dutenean horrelakorik ez ote den gertatzen, erantzun zaiola zailagoa dela, azken horietan izena ematen duenak espresuki herriko udaltzain izateko ematen dutelako izena.

Langileen ordezkariak deialdia udala berak egitearen arrazoitzat ere eman dute, herria ezagutzen ez duen lagun batek ez dituela ohiturak ezagutzen, ezta herritarrak ere, eta herriko udaltzain batek jarriko ez lituzkeen isunak jartzen dituela.

Azken horren harira, alkateak adierazi du udal langileek –udaltzainak barne– objetibotasunez egin behar dutela lan, berdin izanik herritarra nor den, eta Astigarragan hori ez betetzearen inguruko kezak daudela, herritar batzuen hitzetan udaltzainak ez baitie denei tratu berdina ematen, eta hori konpondu beharreko zerbait dela.

Bestalde, alkateak galdetu du oposizio guztia udalak eginez gero, oposiziogileek egin beharreko froga guztiak nola bideratuko litatekeen. Eta udal-idazkariak azaldu dio orain arte udalak dituen udaltzain postu guztietarako oposizioak udalak bideratu dituela, alegia, Jaurlaritzaren esku uztea lehendabiziko aldiz aztertzen dela.

Alkateak adierazi du udal gobernu taldeak gomendioa sinatu nahi izateko duen arrazoi bakarra dela hutsik geldituko diren plazak ahalik eta azkarren betetzea, eta horiek behin betikoz bete arte bitarteko langileekin moldatzerik baldin badago, aztertu daitekeela oposizioa udalak egitea. Gainera, departamendu hori antolatu egin beharko litzakela adierazi du, dagoen moduan ez duelako funtzionatzen. Azken hori langileen ordezkariak ongi

decisión no se debe notificar hasta el 29 de marzo, el acuerdo puede tomarse en junta local ordinaria, y que así se da más tiempo para estudiar mejor el tema.

Ainhoa señala, además, que se ha puesto en contacto con una persona que ha sido guardia municipal de Pasaia durante muchos años, y que le ha indicado que tienen una mala experiencia de cuando han utilizado esa fórmula para llevar a cabo oposiciones, que en más de una ocasión les ha pasado que tras haber nombrado funcionarios de carrera, más de una persona haya dejado su puesto para entrar en la Ertzaintza, lo que conlleva que el ayuntamiento debe abonar las prácticas (incluyendo el cursillo de Arkaute), cuando posteriormente no se va a incorporar como trabajador/a del ayuntamiento.

La alcaldesa señala que la Ertzaintza también realiza convocatorias para cubrir los puestos, y al preguntar si no ocurre algo así cuando son los ayuntamientos quienes organizan la convocatoria, se le contesta que eso es más difícil, porque las personas que se inscriben en ellas lo hacen expresamente para llegar a ser agente municipal.

Las personas representantes de las y los trabajadores han aducido como razón para que la convocatoria sea realizada por el propio ayuntamiento que una persona que no conoce la localidad tampoco conoce las costumbres del lugar, ni conoce a los ciudadanos, y que pondría multas que un guardia municipal de la localidad no pondría.

Al hilo de lo mencionado, la alcaldesa señala que las y los empleados municipales –incluida la guardia municipal– deben trabajar con objetividad, sin importarles quién es el ciudadano en cuestión, y que existen quejas sobre el cumplimiento de ese punto en Astigarraga, porque, en palabras de algunas y algunos ciudadanos, no ofrece el mismo trato a todas y todos, y que eso es algo que se debería arreglar.

Por otra parte, la alcaldesa pregunta que si toda la oposición la realizase el ayuntamiento, cómo se llevarían a cabo finalmente todas las pruebas que deben ser realizadas por las personas opositoras. La secretaria municipal le expone que todas las oposiciones que ha realizado hasta ahora el ayuntamiento para todos los puestos de guardia municipal han sido llevadas a cabo por el propio ayuntamiento, y que en esta ocasión se estudia por primera vez dejarlo en manos del Gobierno Vasco.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

ikusi dutena.

Gauzak horrela, aho batez erabaki da gaia mahai gainean uztea hobeto aztertzeko, eta martxoaren 28an, 12:30ean, ez ohiko tokiko gobernu batzarra egitea, gaia erabakitzeko.

La alcaldesa manifiesta que la única razón que asiste al equipo de gobierno municipal para querer firmar la recomendación es la ocupación lo más rápida posible de las plazas que quedarán libres, y que si hasta que sean ocupadas definitivamente es posible arreglarse con trabajadoras y trabajadores interinos, se podría estudiar la opción de que el ayuntamiento realice las oposiciones. Además, señala que ese departamento habría que organizarlo, ya que no funciona tal como está ahora. Este último punto ha sido bien visto por las personas representantes de las y los trabajadores.

Así las cosas, se decide por unanimidad dejar el tema sobre la mesa para poder estudiarlo mejor, y celebrar una junta de gobierno local extraordinaria el 28 de marzo, a las 12:30, a fin de resolver el asunto.

3.- Euskara sustatzeko egitasmoak elkarlanean garatzeko Buruntzaldeko 2019 plana

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

2019ko plana eta horri dagokion aurrekontua onartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

3.- Plan del 2019 de Buruntzalde para el desarrollo conjunto de programas de fomento de euskara.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas:

Aprobar el plan del 2019, así como el correspondiente presupuesto.

A continuación se procede a votar y **se aprueba por unanimidad.**

4.- Aztigazte lehiaketaren oinarriak eta deialdia.

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

Lehena.- Gazteria arloko 2019rako Aztigazte lehiaketako oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Deialdi publikoa egitea.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **aho batez** onartu da.

4.- Bases y convocatoria del concurso Aztigazte.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas :

Primero.- Aprobar las bases del concurso Aztigazte para el año 2019 del área de juventud.

Segundo.- Realizar la convocatoria pública.

A continuación, se ha procedido a votar el **dictamen**, y se ha **aprobado por unanimidad.**

5.- Kirol arloko 2019rako dirulaguntzen oinarriak

5.- Bases y convocatoria pública de las



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

eta deialdia publikoa.

Alkateak kirola, gardentasuna eta partehartze batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- kirol arloko 2019rako diru-laguntzen oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntzen deialdi publikoa egitea.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **aho batez** onartu da.

subvenciones del área de deportes para el 2019.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión informativa de deportes, transparencia y participación: :

Primero.- Aprobar las bases de subvenciones del área de deportes para el año 2019.

Segundo.- Realizar la convocatoria pública de ayudas económicas.

A continuación, se ha procedido a votar el **dictamen**, y se ha **aprobado por unanimidad**.

6.- Astigarragako Herri Eskolari eskola kirolarentzat laguntza onartzea.

Alkateak kirola, gardentasuna eta partehartze batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 1 0700.481.03.341.00 2019 kontu-sailaren kargu 10746,83-euroko diru-laguntza izenduna onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntzaren baldintzak – horien artean, ordainketa era – eta hartutako konpromisoak arautzen dituen hitzarmena onartzea.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **aho batez** onartu da.

6.- Subvención a Astigarragako Herri Eskola para el deporte escolar.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión informativa de deportes, transparencia y participación: :

Primero.- Aprobar una subvención nominativa de 10746,83.-euros, con cargo a la partida 1 0700.481.03.341.00 2019.

Segundo.- Aprobar el convenio en el que se establecen las condiciones de la subvención-entre ellas, la forma de pago – así como los compromisos que se asumen.

A continuación, se ha procedido a votar el **dictamen**, y se ha **aprobado por unanimidad**.

7.- Astigarragako Herri Eskolari igeriketa kanpainarentzat laguntza onartzea.

Alkateak kirola, gardentasuna eta partehartze batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- 1 0700.481.04.341.00 2019 kontu-sailaren kargu 6.258,00.-euroko diru-laguntza izenduna onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntzaren baldintzak – horien artean, ordainketa era – eta hartutako konpromisoak arautzen dituen hitzarmena

7.- Subvención a Astigarragako Herri Eskola para la campaña de natación.

La Alcaldesa ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión informativa de deportes, transparencia y participación: :

Primero.- Aprobar una subvención nominativa de 6.258,00.-euros, con cargo a la partida 1 0700.481.04.341.00 2019.

Segundo.- Aprobar el convenio en el que se establecen las condiciones de la subvención-entre ellas, la forma de pago – así como los compromisos que se asumen.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

onartzea.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **aho batez** onartu da.

A continuación, se ha procedido a votar el **dictamen**, y se ha **aprobado por unanimidad**.

8.- Dirulaguntza izenduna Norberto Almandoz musika eskolari.

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du, eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- 1 0600.481.04.326.00 2019 kontu-sailaren kargu 116.650 euroko diru-laguntza izenduna onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntzaren baldintzak – horien artean, ordainketa era – eta hartutako konpromisoak arautzen dituen hitzarmena onartzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

8.- Subvención nominativa a la escuela de música Norberto Almandoz.

La Alcaldesa ha presentado el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- Aprobar una subvención nominativa de 116.650 euros, con cargo a la partida 1 0600.481.04.326.00 2019

Segundo.- Aprobar el convenio en el que se establecen las condiciones de la subvención- entre ellas, la forma de pago – así como los compromisos que se asumen.

A continuación se procede a votar y **se aprueba por unanimidad**.

9.- Euskara erabilera sustatzeko dirulaguntzen oinarri espezifikoak eta deialdi publikoa

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak batzordeko irizpena aurkeztu du, eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- euskara ikasi, merkataritza eta enpresa arloan euskararen erabilera sustatu, begirale ikastaroak euskaraz egin eta udako unibertsitatean euskarazko ikastaroak egiteko dirulaguntza oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Dirulaguntzen deialdi publikoa egitea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

9.- Bases y convocatoria de las subvenciones para fomentar el uso de euskara.

La Alcaldesa ha presentado el dictamen de la comisión de euskara, educación, juventud y fiestas y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- Aprobar las bases de subvenciones para aprender euskara, fomentar el uso del euskara en comercios y empresas, hacer cursos de monitor en euskara y cursos de euskara en la universidad de verano.

Segundo.- Realizar la convocatoria pública de las ayudas .

A continuación se procede a votar y **se aprueba por unanimidad**.

10.- Kultura, Euskara eta Jaien arloetako hainbat dirulaguntza emateko oinarri espezifikoak eta deialdi publikoa

Alkateak euskara, hezkuntza, gazteria eta jaiak eta kultura batzordeetako irizpenak aurkeztu ditu, eta

10.- Bases y convocatoria para la concesión de diversas ayudas del área de cultura, euskara y fiestas.

La alcaldesa ha presentado los dictámenes de las comisiones de euskara, educación y juventud y la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

akordioa hau hartzea proposatu du:

Kultura, Euskara eta Jaien arloetako hainbat diru-laguntzen deialdia.

Lehena.- 2019rako diru-laguntzen oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Diru-laguntzen deialdi publikoa egitea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez** onartu da.

comisión de cultura, y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Convocatoria para diversas ayudas del área de cultura, euskara y fiestas

Primero.- Aprobar las bases de las subvenciones de 2019.

Segundo.- Realizar la convocatoria pública de subvenciones.

A continuación se procede a votar y **se aprueba por unanimidad.**

11.- Informazioa, galderak eta eskariak

11.- Información, ruegos y preguntas.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2019ko martxoaren 20an

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria